

Etsitzen hasiak ginelarik

Seguru aski, Uxue Barkosen gobernuak beharrezkoak zituen hogei hila bete geldo hauek. Jokoaren arauz jabetzeko. Indarrak neurtzeko. Tiraderetan arakatzeko. Tranpak detektatzeko, indargabetzeko. Sabaia eta estoldak ezagutzeko. (Benetako) lagunak eta (benetako) etsaiak bereizteko... Zein luze egin zaizkigun, ordea.

Kezkagarriena ez dira izan hasiberriaren hanka-sartzeak. Kezkagarriena izan da arintasun falta, tonu grisa, erabakiak hartzeko herrena. Munduko denbora guztia balu bezala ari zen, munduko denbora guztia duenik ez dagoelarik batere garbi. 2015ean, maiatzean piztutako esperantza zalantza bilakatzen hasia zen abenduan. Zalantzatik etsimendura lerratzen hasiak ginen 2016ko hondarrean.

Hara non, gobernuak gobernatzen hasi da bat-batean.

Hitzarmen ekonomikoa dela-eta Madrili hortzak erakutsita, jokoaz kanpo harrapatu du UPN. Trenaren eta ubidearen proiektu gatazkatsuei nola heldu dien ere ez zuen espero Javier Esparzaren alderdiak. Ikurren sinboloaren baliogabetzea ez da jadanik promesa bat. Euskararen plan estrategikoaren aurkezpenak norabide bat eta helmuga batzuk markatu ditu arrankatu ezinik zirudien alorrean. Gure hizkuntzaren erabilera arautuko duen foru dekretua, nonbait, berehala da etortzekoa.



Aingeru Epaltza

IDAZLEA
@AEpaltza

Hara non, gobernuak gobernatzen hasi da bat-batean. Hitzarmen ekonomikoa dela-eta Madrili hortzak erakutsita, jokoaz kanpo harrapatu du UPN

Ezin erran gobernuak azeleragailua sakatu duenik. Egiatzko neurriak berantesteko denbora izanzen dugu aurten ere, Barkosen kabineteak bere buruari jartzen dizkion epeen luzea ikusirik. Datu guztiak mahai ganean izan arte erabakiak geroratzeko urte eta erdi honetako grina ez da apalduko legegintzaldiari dagokion denboran. Kontu honek, nolana ere, bertzelako itxura hartu du.

Albisteak jarioan heldu dira, eta gehienak gozo. Euskararendako dirua zenbait aldiz biderkatu da Nafarroako 2017ko aurrekontuetan. Iruñeko haur eskoletan euskarazko eskaintza handituko da aurten ere. Erriberan, D ereduaren aldeko apustu publikoa finkatua eta hobetua dator aurten. Zonifikazioak astindu bat hartuko du luze gabe: eremu ez euskalduneko hamabi udalek adierazi diote Nafarroako Gobernuari eremu mistoan egon nahi dutela. Bertze hainbat herriren -Tafalla, Zangoza- bide-erakusle izanen dira agian.

Bada oraindik gutxi irizten dionik horri guztiari. Brida dezala bere burua. Hizkuntzaren kontrako jarreraren gorakada detektatu du azken inkesta soziolinguistikoak; UPNren eta PPren espantuek ez dute ez entzule ez bozgorailu falta. Gainerakoetan ez dakit. Euskara kontuetan, nora joan garbi izanda, hobe mantso eta zalaparta handirik gabe, bazterrak harrotzen ibili baino. Munduko denbora guztia ez izanagatik ere. ■

Bozka ezazu!
Bozkatzeko epea:
otsailaren 13tik martxoaren 10era
blogetan.eus

Antolatzailea: **AKUE**
FUNDAZIOA

Laguntzailea: **ARGIA**